

## SASKIBALOIA

Chicagok burua  
altxa ezinik  
segitzen du

NEW YORK

Chicago Bulls taldeak burua altxa ezinik segitzen du denboraldi hasiera horietan. NBAko azken jardunaldian, egungo txapelketa 103-101 galdu zuten Sacramento Kings ahularren kontra, joko kaskarra eginez. Horrela, Sacramento Bulls aurkako bolada txararekin amaitu zuen, euren kontra jokatuak azken zazpi partiduetan porrot egin baitzuten Kaliforniakoek.

Chicagoko jokalariek ez ziren batere ondo aritu defentsan, eta erasoan momentu erabakiorrenetan saskiratuko duen gizonik ez duela argi erakutsi zuen. Iaz arte Michael Jordan zen erantzukizun hori hartzen zuen jokalaria, Scottie Pippenek lagunduta. Momentu honetan ordea, Jordan gabe eta Pippen lesionatuta, Toni Kukoc izan da azken partiduetan erantzukizun hori hartu behar izan duena, gehienetan emaitza onik gabe. Mendebaldean zehar egiten ari den gira hasi zenetik, porrotak izan dira nagusi Phil Jacksonek zuzentzen duen taldearentzat.

Chicagorentzat gauzak gaizki badaude, ez doaz askoz hobeto Los Angeles Lakers taldearentzat. New Jerseyren aurkako partiduan 105-102 galdu zuten Randy Pfunden mutilek, eta beren marka 2 garaipen eta 8 porrotetan utzi zuten, benetan kaskarra. New Jersey hiru partidua galdu zituen jarraian, baina Lakersen aurka berriro ere bide onera itzuli ahal izan zuen.

Detroit Pistonek badi-rudi bidea aurkitu duela azken jardunaldietan, eta 103-89 irabazi zion Philadelphia 76'ers taldeari. Isaiah Thomas lesionatuta, Lindsay Hunter *rookie*-ak hartu du bere lekua, joko bikaina erakutsiz. Bill Laimbeer pibota ere sasoi izugarrian dago, eta bera izan da azken partiduetako izarra Don Chaneyren taldean.

Jardunaldi honetako azken partiduan, Portlandek erraz gainditu zuen Dallas Mavericks ahula (103-90).

## EMAITZAK

Nets	105	Lakers	102
Detroit	103	Sixers	89
Kings	103	Bulls	101
Portland	103	Dallas	90

# «Erdipurdiko» Taugresen Europarako moldatu egin nahi du gaur Spliten

Jugoplastika ohia talde gogorra du aurkari Europako Kopako ligatxoaren hasieran

**M**anel Comas Mentrenatzailearen arabera, ACBn «erdipurdika» jokatzetik datorren Taugresen Europarako moldatu nahi du gaur Kroazian, Croatia Split —Jugoplastika ohia— talde gogorraren kontra. Europako Kopako ligatxoa hasteko jardunaldi zaila izango da.


LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

1993-94eko Taugres-Baskoniak bikoiztasunean jardun behar duela dirudi eta herenegun Gironan «pattal» aritutakoan gaur Spliten Croatia Insurance taldearen kontra bete-betean jokatu nahi dute Gasteizko taldeko jokalariek. Duela aste batzuk Caceresen barregarri geratu ondoren Lituaniar partidurik serioena jokatu zuten, gaur berdin ibili eta Europar diharduen taldearen birmoldatzeari eusteko asmoa dute.

Croatia, ordea, ez da gainbeheran dagoen Zalgiris lituaniarra, izugarriko iragana baina egungo talde bikaina ere badi-tuen Jugoplastika ohia baizik: Jugoslaviako sei liga eta bost kopa, Europar hiru aldiz txapelkun eta bi Korac Kopa. Baina tituluek badute orainarekin zerikusia. «Croatia talde serio eta arrisku-tsua da», betidanik Spliten jokatu zuen Velimir Perasovic Taugresen eskoltak esandakoaren arabera. Zozketaren aurretik are argiagoa azaldu zen: «Ez dut Croatia Split aurkari izan nahi». Comas entrenatzaileak, azkenik, bi hitzetan laburtu du: «Gure multzoko talderik gogorrena da».

Kroaziarrek nahiko koktel erakargarria osatu eta honako hau da bosteko titularrak: jokoa antolatzeke Damir Masic 22 urteko baseak zuzendu eta puntuak lortzen ere badaki; parean Steve Colter 31 urteko eskoltak, basean ere joka dezakeenak, Chicago, Sacramento, Portland eta Washington ezagutu ditu NBA izandako esperientzian; Zoran Cutura 2.02ko hegalak Jugoplastikaren iraganeko sona guztia dakar gogora eta maila onari eutsi egiten dio; zona barruan, Romeo Cvejeticanin (2.10) hegal-pibot gaztearekin batera, Franjko Arapovic 2.15eko pibota, Zagrebetik fitxatzean ika-mika de-xente sortu zuen jokalaria.

**PERASOVIC** Postu bakoitze-ko borroka ikus-garria izango den arren, pare bat nabarmendu-



Perasovicekin, Taugresen atzerritar bikotea osatuko du Bannisterrek.

## Europarako prest

L.K.G. / GASTEIZ

■ Croatia Insurance Split taldeak ez du apenas ezer galdu aurtengo denboraldian. Alde batetik, Kroaziako txapelketan buru da Slavko Trininic entrenatzaileak zuzentzen duen taldea, Croatia Linerekin batera porrotik ezagutzeke hegoaldeko multzoan. Bestalde, Europar kale egin zuten Europako Txapelketa jokatu ahal izateko ez zutelako sailkapena lortu, baina Malinas talde belgikarrak Jugoplastika ohiaren bidea itxi zuen. Partidu erabakiorren epailek behar bezala jokatu ez zutelako argudiatu zuten orduan Croatiako askok, baina azkenean Europako Ligatik Europako Kopara pasa behar

ko dira, Ramon Rivasen eta Arapovicen arteko pisu astunetako dema batetik eta Perasovicen bere betiko etxean kanpotik ekarritako Colter estatubatuarren kontra izango duen norgehiagoka aurkariaren saskia zulatzen.

Izan ere, Jugoplastikatik alde

izan zuten kroaziarrek.

Datu guztiek adierazten dute taldea Taugresen batera hurrengo fasera iristeko favorito dela. Baina argi dago ere Croatia Osiguranje —jatorrizko izena— Europar aritzeko bereziki prestatu dela aurretik: atzerritarren lekuri betetzen ez zuten Franjko Arapovic Zagrebetik ekarri zuten buruhauste eta tramite ugari eskatu zuten fitxaketa batean, eta bestetik, Anthony Reed eta Steve Colter kontratatu zituzten Europar beste taldeek bi estatubatuar erabiltzen dituztela ikusirik baldintza berdintsuetan jarduteko. Orain bakarria dute, baina edonola Europaren aukerari eutsi nahi dio aurretik berriro Jugoplastika ohiak, Taugresen bezala.

egin zuten jokalarik andanaren faltari aurre egiteko kroaziarrek estatubatuar fitxatzea onartu zuten. Anthony Reed Europako Txapelketarako ekarri zuten, baina taldeak ez zuten sailkatzea lortu eta jokalaria kaleratu egin zuten. Colter, aldiz, pattal hasi

PUNTUZ PUNTU

### 'Gripe pabilioian'

● **KIROLDEGI** handian ariko dira Taugres eta Croatia Split. Velika Dvorana pabilioiak 8.000 ikuslerentzako tokia dauka, eta taldeak daukan historiagatik, saskibaloian adituak dira zaletuak. Baina bitxikeria da pabilioiak 'Gripe kiroldegia' ezizena daukala, futbol txapelketan Valladolidekin gertatzen den bezala. Egia esan Araba pabilioian egiten duen hotzagatik kezu azaldu da behin baino gehiagotan Manel Comas, baina Baskoniako entrenatzaileak ez du nonbait oraindik gogorrena pairatu eta gaur 'gripearen arriskuan' jokatu beharko du bere taldeak.

● **IZEN-ABIZEN** sonatuak ditu Croatia Spliten jokalariek zerrendan. Adibidez, Cutura eta Arapovic ezagunak gainera, Josip Vrankovic eskoltak oso famatua da saskibaloian, baina hala ere, ez da gaur egun Grezian jokatzeko duen pibot gogorra bezain ona. Berdin Romeo Cvjeticanin jokalariek dagoeneko. Estudiantesekoaren senidea da, baina oraindik gaztea da eta ez du Dankoren maila lortu.

● **CROATIA AIRLINES** da taldearen babesletako bat, Croatia Insurance enpresaz aparte. Kroaziarrek bat egiten dute horretan Zalgiriseko lituaniarrekin, hauek ere aire garraioen publikitatea zermatelako. Hala eta guztiz ere, Spliten aireportuak lan askorik ez duela ematen dirudi, ailegatzean Gironatik zetorren espedizioak ez zuelako apenas mugimendurik ikusi aireportu kroaziarrean. Gerarak eragindako egoera ez da ez onena eta Nazio Batuen konboiengatik ez balitz ez litzateke trafikorik egongo Spliten aireportuan. Gaur partiduan zona barruan ez da berdin gertatuko.

baina ederki dabil azkenaldion.

Bestalde, Comasek orain ikusi gabeko luxuzko bosteko kantxaratuko du: Laso, Perasovic, Abad, Bannister eta Rivas. Hortaz, bigarren atzerritarrenkin jokatu ahal izango du gaur gaueko 8.15etatik aurrera.